

PRENTSA OHARRA: 2025.07.10

Mundu osoko unibertsitateetako euskara eta euskal kultura irakasleak bilduko dira Donostian

- Etxepare Euskal Institutuaren Irakurleen VIII. Topaketan hamar herrialdetako 13 irakasle bilduko dira bihar
- Helburua da esperientziak partekatzea, ikasturtearen balorazioa egitea eta Institutuaren nazioarteko unibertsitate sarea sendotzea

Donostia, 2025eko uztailaren 10a. – Munduko hainbat unibertsitatetan euskara eta euskal kultura irakasten duten irakasleek —irakurleak hizkera akademikoan akademikoan— hitzordua dute bihar, uztailak 11, Donostiako Tabakaleran, Etxepare Euskal Institutuaren Irakurleen VIII. Topaketan. Hamar herrialdetatik etorritako 13 irakaslek hartuko dute parte, proiektuak partekatzea, ikasturtearen balorazioa egitea eta nazioarteko testuinguruetan euskara irakasteak dakartzan erronkez hausnartzea xede.

Irakurleok ikasturtean zehar lanean aritu dira Edinburgo, Berlin, Santa Barbara, Helsinki, Paris, Habana, La Plata, Chicago, Brno, Praga, Bolonia, Venezia edota Varsovia bezalako hirietako unibertsitateetan, eta Etxepare Euskal Institutuak sustatzen duen unibertsitate sareko kide dira. Sare honek gaur egun 35 unibertsitate biltzen ditu mundu osoan, eta guztira 29 irakurlek dihardute euskara eta euskal kultura irakasten.

Eztabaida-saioez eta esperientzien trukerako tarteez gain, topaketak bideo-sorkuntzari buruzko prestakuntza praktikoa eskainiko du, Beñat Flores adituaren eskutik. Helburua da irakurleek euskararen irakaskuntza eta zabalkunderako baliabide berritzaileak eskuratzea.

Halaber, topaketan parte hartuko dute Etxepare Euskal Institutuko zuzendari Irene Larrazak; Euskara Sustatu eta Hedatzeko zuzendari Monika Madinabeitiak; eta irakurletza sarearen arduradun diren Eneko Agirre eta Amaia Goikoetxea teknikariek.

Irakurleen VIII. Topaketak unibertsitate sarea sendotu eta irakasleen gaitasunak eguneratzea helburu dituen hiru eguneko prestakuntza-programari emango dio amaiera. Programa honen baitan, irakurleek Euskal Herriko Unibertsitatearen Udako Ikastaroen testuinguruan antolatutako ‘Bikaintasuna Euskal Ikasketetan XV’ ikastaroan hartu zuten parte atzo, eta gaur baliabide digitalen erabilerari buruzko saio praktiko batean arituko dira, batez ere jokoetan oinarrituta, gelako jardueretarako baliagarriak izan daitezkeen ariketak identifikatu eta lantzeko asmoz.

Euskara eta euskal kulturarentzat sare estrategikoa

Etxepare Euskal Institutuak euskara eta euskal kulturaren irakaskuntza sustatzen du nazioarteko unibertsitateetan, euskal ikasketei zabalkundea, sakontasuna eta prestigioa emateko xedez. Erreferentziazko unibertsitateekin sinatutako lankidetzahitzarmenen bidez, Institutuak euskararen eta euskal kulturaren nazioarteko proiektzioa indartu, eta unibertsitate-testuinguru globalean beste hizkuntza eta komunitateekin topaguneak sortzen laguntzen du.

Irakaskuntzaz harago, irakurleak euren unibertsitateetako bizitza kulturalaren dinamizatzaile dira, jarduera akademiko eta kulturalak antolatuz eta kulturen arteko elkarrizketa sustatuz

2018az geroztik egiten den Irakurleen Topaketaren helburua da sare estrategiko hau sendotzea, praktika onak trukatzeko eta euskararen eta euskal kulturaren ordezkari diren irakurleen prestakuntza profesionala indartzea.

Etxepare Euskal Institutua

Etxepare Euskal Institutua Eusko Jaurlaritzaren erakunde publikoa da. Euskara eta euskal kultura eta sorkuntza nazioartean proiektatzeko, eta horien bidez beste eskualde, herrialde eta kultura batzuekin harreman iraunkorrak eraikitzeko egiten du lan. Horretarako, kalitatezko jarduera artistikoak sustatzen ditu, eta kulturaren alorreko

sortzaile, artista eta profesionalen mugikortasuna bultzatzen du. Euskal ikasketak ere bultzatzen ditu eremu akademikoan. Era berean, nazioarteko eragileekin lankidetzak sustatzen du, bai kulturaren arloan, bai esparru akademikoan.

Info +

Komunikazio saila
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera | Andre Zigarrogileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus